

## 2016ko GIZARTE EKINTZA

---

Pasa den azaroaren 24an, Sailarekin bilera izan ostean, 2016ko Gizarte Ekintzako datuak helarazi zizkiguten.

Jasotako informazioaren arabera, abenduko lansariarekin batera ordainduko da.

69 eskaera aurkeztu dira, zeinetatik 41 onartuak izan diren. Kanpo geratu diren 28tik, 23 ez dira kalte mailara heldu, 3 babestutako arrazoietatik kanpo daude, 1 epez kanpo aurkeztu da eta beste bat funtzionario ez den pertsona batek eskatu du.

Azken honi buruz, LABetik salatzen dugu Sailak gaizki jokatu izana. Berea zen akatsa zuzendu nahi izan dute, hots langile laboralen gizarte ekintza aurtengo deialdiaren informazioa kolektibo honi berandu ailegatu izana. Ez da onargarria akats hau konpondu nahi izatea funtzionarioen laguntzak murriztuz. LABek berraztertzeari ekitea premiatu zion Sailari, funtzionarioen eskaerak bakarrik onartuz, beste eskaerak instantean baztertuz. Sailaren erantzuna ondokoa izan zen: lehenengo momentuan eskaera hau onartu zela “aztertzeko”, baina azkenean ez zela eman.

Zenbatekoa 50.000 eurokoa da. Guztira 261.753€ eskatu dira. Kopuru hau 190.935 eurora murrizten da baztertutako eskaerak kenduta.

3.000 euroko kalte maila gainditzen dituzten 16 eskaera daude, hau da, 39.110€ guztira. Gainerakoa, 10.890€ geratzen diren eskaeren artean banatu da. Banatutakoa ez da eskatutakoaren %45era heltzen. Aurten, kalte maila iazkoa baino handiagoa izan da.

Ukazioen artean bazegoen bat mendetasuna duen pertsona batentzako zaintza lanak egiteko laguntza eskatzen duena. Ukazio hori aurkeztutako dokumentazioa oker egotean datza, hala ere, Sailak aitortzen du elbarrientzako arretarako laguntza ez bezala, mendetasuna ez dago txertaturik Gizarte Ekintzako deialdietan. LABetik helegitea jarriko dugu ukazio honen aurrean, izan ere, zalantzarik Gabe onuraduna izan beharko litzetekeen eskaera bat bada, salbuespen izaerako laguntzetara zuzendua dagoen 15. artikuluan sartu ahal

delarik. Mendetasuna aitortu beharreko gizarte errealidade bat delakoan gaude. Halako kasuak gero eta ohikoak dira, eta hurrengo deialdietarako mendetasuna gizarte ekintzaren laguntzak eta halako egoerak lotzen dituen artikulua bat sartu beharko litzateke, elbarritasunarekin egiten den legez.

Azkenik, eta irizpide interpretagarrietan oinarritutako onarpenak dituen eskaerei lotuta, Sailari eskatu diogu auzi hauekiko edozein erabaki hartu aurretik sindikatuekin bilera bat deitu dadila eztabaidatu ahal izateko eta hartara ebazpena ahalik eta bidezkoena izan dadin.

12-12-2016